

SARRERA

Gu Gaugiro enpresako kideak gara (Jon, Markel, Manex, Iñaki eta Urko). Gure enpresa ostalaritza enpresa izango da eta gure lehen proiektua eta orain deskribatuko duguna "sagardoteka" delakoa izango da. Sagardoteka, sagardotegi eta diskoteka baten konbinaketa da. Gure helburua gazteak parrandara joan aurretik afaltzera sagardotegira joatea da (nahiz eta bazkariak ere eskainiko genituzkeen) eta ondoren diskoteketara joateko kotxeak hartu beharrik ez izatea. Izan ere, gaur egun, garrantzi handiko esparru bat da aldaketa klimatikoa eta gure proiektua hau errespetatuz atera nahi dugu aurrera, hau da, kotxeen erabilera, ahal dugun moduan behintzat, saihestu egin nahi dugu.



Hala ere, helburu nagusia, ostalaritza enpresa bat izanda, bai sagardotegiak eta bai diskotekak ongi funtzionatzea izango da. Sagardoteka honen kokalekua industria-nabe bat izatea pentsatu dugu, alokairuan hartuko genukeena.